

AVIOTV

2021EKO OTSAILAREN SEKO BILKURAKO
AKTA



AUZOTU

komunitateak konektatzen
conectando comunidades



AVRKIBIDEA

Zer da Auzotu?	3. orrialdea
Auzotu proiektuaren bigarren bilkura	6. orrialdea
Dinamikak laburbilduta	9. orrialdea
Dinamikak, zehatz-mehatz	13. orrialdea
Eskertu beharrekoak	24. orrialdea



AVIOTU PROIEKTVA AMARABERRIN AVRKELTEA

ZER DA AVILOTU?

Pandemiak eragindako krisiak eragin handia izan du gure arteko harremanetan, eta erronka eskergakoa da komunitatean parte hartzeari dagokionez. Modu eredugarrian erantzun dute herritarrek, banaka, autogestionatuta edo erakundeen inguruan antolatuta.

Amaraberrin Zaintza Sarea dugu: alarma egoera indarrean jartzearekin aktibatu zen, eta 120 pertsona inguruk parte hartu zuten lehen konfinamenduan 70 bizilaguni baino gehiagori konpainia eskainita.

Teknologiaren eginkizuna funtsezkoa izan da laguntza komunitarioko moduak pandemiagatik **hartutako urruntze neurrietara egokitzeko**: herritarrentzako berehalako mezularitza zerbitzuak, akonpainamendua erraztu duten bideo deietarako plataformak, elikagaiak emateko kanpainen irismena hobetu duten gizarte sareak, herritarrentzako informazio garrantzitsua helarazi duten irrati komunitarioak, etab..

AVILOTU
LOTURA DA

ZER DA AVIOTV?

Orain, inoiz baino gehiago behar dugu auzoetako jendea konektatuta egotea. Horregatik, Auzotu proiektuaren bidez, herritarren laborategi gisa funtzionatzen duen espazio bat ireki nahi dugu, galdera hau aztertu eta haren inguruan esperimendatzeko: **nola lagun diezaieke teknologiak laguntza komunitarioko ekimenei funtzionatzen?**

Horretarako, prozesu bat jarri dugu abian Donostian, eta, Amaraberri auzoko komunitate bizitzan parte hartzen duten pertsonen parte hartzea lagun, irtenbide teknologikoak komunitate dinamiketan txertatzeak planetatzen dituen aukerak eta oztopoak identifikatuko ditugu.

Nahi duzunean atxiki zatzaizkioke Auzoturi, hasieratik parte hartu duzun edo ez gorabehera.



AVIOTV
ESPLORATZEA DA

ZER GALDU DUT AVIOTUN?

Landa lan batekin hasi da Auzotu, zeinean Amaraberrirekin loturaren bat duten pertsonekin hitz egin dugu, COVID-19aren krisia nola bizi izan zuten eta teknologia nola erabili zuten jakiteko. Oso ekimen erabilgarri, eder eta sortzaileen berri izan dugu, auzotarrek sortu dituztelarik, bakarka, modu autogestionatuan, edo erakunde batzuen inguruan antolatuta. Lorratz asko eman dizkigute elkarrizketatutako pertsona eta erakunde guztiek **teknologia erabiltzeak dituen premiei, onurei eta zailtasunei buruz.**

Lehen fase hori amaituta, **parte hartzeko lansaio** batzuekin hasi gara, Amaraberrin pandemiatik bizi dugun errealitatean sakontzeko. Abenduan izan zen lehen saioa, hilabete horietan gertatutakoari buruzko hausnarketa bateratua egiteko, eta lehen akta hori irakurtzera gonbidatzen zaituztegu, partekatutako ideia guztiak biltzen baititu.

Otsailean, 2021eko udara antolatu ditugun bost saioetatik bigarrena izan dugu. **Hona hemen emaitzak.**

AVLOTU PROIEKTUAREN
BIGARREN SAIOA,
AMARABERRIN



PARTE HARTZEKO

2. LANSAIOA

Bileraren eguna: 2021/02/05a

Iraupena: 017:00-19:00.

Tokia: Ernest Lluch kultur etxea

SAIOAREN HELBURVAK

Hiru helburu espezifiko ditu saioak:

- Pertsonen arteko “lotura elementuen” bilketa **partekatzea**. Gure eguneroko eta gure sarearen begirada zabaltzea da kontua.
- Bildutako lokailu horiek elkarrekin aztertzea eta horiei buruz **hausnartzea**.
- Telefono finko eta mugikorren, ordenagailuen eta bestelako tresna digitalen eginkizunari buruz **hausnartzea**.

Helburu horiek lortzeko, saioan hiru dinamika planteatzen ditugu, sarreraz eta partaideen balorazioa jasotzeko itxieraz gain:

- Aurkezten eta geure buruari honako hauek galdetzen hasten gara: Nola gatoz? Zer dugu komunean? Zer eman dezakegu?
- Saioaren aurreko egunetan, parte hartzaileak gonbidatu genituen Whatsapp bidez bi misio txiki egitera. Misio edo eginkizun horiei esker, lotura konfinamendua gorabehera mantentzen laguntzen duten eguneroko keinu txikiak eta lotura uneak bildu genituen: mezu baten, objektu baten argazkia; lekukotasun audio bat, bideo bat, testu bat, marrazki bat...
- Bigarren dinamikan, "lokailu" horiek bateratu genituen, galdera hau oinarri hartuta: Zer jaso dugu esploratzeko misioetan? Bukatzeko, bi gogoeta partekatu ditugu: Nola goaz? Nor falta da?

AVZOTU PROIEKTUAREN BIGARREN SAIOKO DINAMIKEN LABURPENTXOA

BIGARREN SAIOA BEQIRATU BATEZ

Herritarrei laguntzeko hainbat ekimen ezagutzea eta elkarrekin lotzea dira bigarren elkarraldiaren asmoak, haien egunerokotasunaz gehiago jakiteko, ikasi dituztenak aztertzeke eta teknologiek haien lanean izan duten zereginera lehen aldiz hurbiltzeko.

1

Parte hartzaile gehienek elkar ezagutzen zuten, 2020ko abenduan egin zen aurreko bilkuratik. Hala ere, pertsona berri batzuk zeuden, eta, beraz, lehenengo dinamikan, elkar hobeto ezagutzeko alderdi batzuk planteatu genituen, enfasia bertaratutakoek partitzen zituzten gauzetan jartzen zutenak, esate baterako, auzoa hobetzeko nahia edo zenbait bizilagunen isolamendu egoerak sortutako kezka. Azkenik, lotzen gaituen elkarren mendekotasuna nabarmentzeko asmoz, galdera bat egin genuen: Amaraberri auzoaren testuinguru partekatua kontuan hartuta, zer eman eta partitu ziezaieketen pertsona batzuek beste batzuei?




2

Sentipen asko piztu zituen bigarren dinamikak. Parte hartzaileek lantegiaren aurreko egunetan egindako esplorazio misioetan bildutako lotura elementuak partekatu genituen:

- Balkoiak lotura gune gisa erabiltzea, haietatik hitz egin baitute, sostengua erakutsi, jokoak eta are kontzertuak antolatu ere.
- Askotan aurrez harremanik ez zuten bizilagunen opariak, esaterako, bizkotxo bat egitea eta bloke bereko beste pertsona bati zati bat eramatea.
- Laguntza eskaintza ugari atari eta igogailuetan, kartelen bidez.
- Era guztietako zeremoniak: Leihopetik taldean urtebetetzeagatik zoriontzetik hildako auzokide bat agurtzeraino.
- Bakarrik bizi diren adineko pertsonei farmaziek lagundu izana.
- Erakunde publikoek linean jarri dituzten izapideak osatzeko laguntza, baliabideak (ordenagailua, Interneteko konexioa) edo ezagutzak partekatuta.

BIGARREN SAIOA BEQIRATU BATEZ

Laburbilduz, partekatutako guztiak argi uzten du gizakiak elkarren mendekoak garela eta elkarrekin bizi garen lekuak konfiantzazko eta babeseko espazioak izaten lagundu behar dugula. Komunitatearen eta taldeen interesak zaintzea norbanakoaren ongizatea lortzeko modu eraginkorra da. .



BIGARREN SAIOA BEGIRATU BATEZ



Partekatutako itxiera eta balorazio dinamikan, gehiengoak dio iritsi zenean baino hobeto doala eta oso gustura egon dela parte hartu duten pertsonen esperientziak entzuten.

Inspirazioa eta ideia berriak aldean doaz, auzoarentzako beste aukera batzuk gogoan.

Hurrengo saiora nor gonbidatu lezaketen pentsatzeko eskatu diegu, saio horretan gogoan erabiliko baitugu teknologiak nola lagundu dezakeen herritarrentzako laguntza ekimenak lotzen eta antolatzen. Gizarte talde hauek aipatu dituzte: gazteak (zenbait pertsonak aipatzen duten taldea da), nerabeak, haurrak, auzora iritsi berriak diren pertsonak, auzoko dendak eta egoera zailetan dauden pertsonak.

BIGARRAREN AVIOTU SAIOAREN
DESKRIBAPEN ZEHATZA

1. DINAMIKA: GIROTZEN

Hiru galdera egin ditugu, parte hartzaileek beren gogo aldartea, zer duten komunean eta zer ekarpen egin dezaketen azaltzeko. Azken buruan, hobeto ezagutzeko.

NOLA GATOZ LAN SAIORA?

ZER DUGU KOMUNEAN?

ZER EMAN DEZAKEGU?

2. DINAMIKA: ZER JASO DUGU ESPLORATZEKO MISIOETAN?

Hau esplorazio saio bat da, eta, horretarako, saioaren aurreko egunetan, parte hartzaileak esploratzeko txapela janztera gonbidatu dira, Whatsapp bidez bi misio txiki egiteko. Misio horiei esker, azken hilabeteetan **konexioa mantentzeko aukera eman zuten** gauza txikiak, keinuak eta **eguneroko loturako uneak** bildu ahal izan genituen. Formatua librea zen: mezu baten, objektu baten argazkia; lekukotasun audio bat, bideo bat, testu bat, marrazki bat... Edozer!

Lotura lekukotasun asko jaso genituen, eta horiek partekatzen, sailkatzen eta hausnartzeko erabiltzen ditugu. Hona hemen atera ziren gaiak.

#ERABILERA ANITZEKO BALKOIA #ERAKUSLEIHO-BALKOIA
#LOKAILU BALKOIA

Balkoia auzokoekin lotzeko gune erabili-erabilia izan da. Haietatik hitz egiten zen, jolasten, gauzak trukutzen, agurtzen, musika partekatzen eta jotzen, eguneroko jarduera txikiak planteatzen, konfinamendu denbora hobeto eramateko. Adibide bat aipatu zuten: auzotar batek txirrika bat zuen, eta, horri esker, erosketak balkoi batetik bestera pasatzen zituzten..

#SENTIPENAK PARTEKATZEA #BABESTUTA SENTITZEA # BELDURRA, FRUSTRAZIOA
ETA TRISTURA

Herritarrek hurbileko pertsonen egoera emozionalaz arduratzeko izan zuten jarreraren inguruko iruzkin eta froga txiki asko jaso ditugu. Beldurra, frustrazioa eta tristura zeudela nabaritzen zen, eta adorea eman du ikusteak pertsona asko prest zeudela inguruan zituztenak entzuteko eta laguntzeko.






#OPARIAK #ESKUZ EGINIKO OPARIAK #EZ DUT BOTAKO

Jende askok esan du laguntza adierazi diotela opari txikien bidez. Horietako asko eskuz egin zituzten bizilagunek (maskarak, apaingarriak, etab.) edo sukaldean prestatu (bizkotxoak). Askotan, auzokide horiek igogailuan agurtzeko baino ez zuten elkarrekin hitz egin lehenago, eta, une horietan, oparien bidez, beren burua aurkeztu eta laguntza eskaini dute.

·#ETXEKO ZAINKETAK #GURE ARTEAN #BIZILAGUNEKIKO INTERNET BIDEZKO AISIALDIA

Beste kasu batzuetan, konfiantza zegoelarik, konfinamendua aprobetxatu dute elkar zaintzeko. Adibidez, beste auzokide batzuen ile apaintzaileak izan dira bizilagun batzuk. Batzuek, bakarrik bizi zirela jakinda, elkarri deitu eta egunero hitz egiten zuten. Beste batzuetan, bingoak eta jarduerak antolatu dituzte, bideodeien bidez denbora elkarrekin emateko.



**#DISTANTZIA GORABEHERA, #ELKARREKIN
#LAGUNAK #BIDEODEIA**

Lagunen eta familiakoen arteko harremanak indartu egin dira, deitzeko eta komunikatzeko doako tresna digitalen bidez. Distantzia ez da traba izan harremanak estutzeko eta elkarrekin sentitzeko; askotan, alderantziz izan da: jende asko ohi baino gehiago komunikatu da. Era berean, horrelako baliabide digitalik ez duten pertsonak kontuan hartzearen garrantzia ere aipatu dute. Gogoan izan behar da pertsona batzuek zailtasun ekonomikoak dituztela eta arrakala digital bat dagoela, eta arrakala horrek jende asko gizarte dinamika horietatik kanpo uzten duela.

**#LAGUNTZA ESKAINTZEA #DESINTERESATUTAKO LAGUNTZA #ELKARRI
LAGUNTZEA #LAGUNTZA ESKATZEA**

Konfinamenduan, laguntza eskaintza lehertu egin da (igogailuan, atarian edo kalean kartelak jartzea, deiak, sare sozialetako mezuak eta abar). Lan txikietarako laguntza eskaintza horiek, adibidez, erosketak egiteak edo zaborra eramateak, jendea babestuta eta artatuta sentiarazi dute. Hala ere, saioan esan zutenek, zailena laguntza eskatzen ausartzea izan da. Historian, beste une batzuetan, auzoan izan den konfiantza maila izatea etorkizunerako erronka delakoan daude.

#ADINEKOEN AHOTSA #ELKAR HOBETO EZAGUT DEZAGUN

Belaunaldien arteko espazioa askotarikoak sortzeak duen garrantzia nabarmendu dute, adinekoek beren esperientziak partekatzeko eta entzuleak izateko. Adineko pertsona asko zein prozesutan dauden ulertu eta inplikaturak nahiz babestuta sentitzea zaindu beharra dago.



#ELKARREKIN KANTARI

Instrumentuak jotzen edo kantatzen dituzten pertsonen elkarrekin aritzeko moduak bilatu dituzte, tresna digitalen bidez. Gauza bera ez bazen ere, elkartuta sentitu dira, eta, une batzuetan, abestiak sortu dituzte elkarrekin, eta, gero, mundu osoarekin sarean partekatu dituzten jarduerak egin ahal izan dituzte.

#OMENTZEA #OSPATZEA

Urtebetetzeak edo hileta agurrak hainbat lagunik ospatu ahal izan dituzten mugarriak izan dira, tresna digitalei esker, omenduak baliabiderik ez bazuen ere. Begoña Callejaren adibidea ere aipatu dute; izan ere, bere amaren bizilagunei deitu zien ordu jakin batean etxeko patiora atera eta denek batera ama zoriondu zezaten. Horrelako zeremoniak, bideoz, ahots mezuz eta abarren bidez, protagonista izan dira, eta ospakizun eta omenaldi gogoangarriak bihurtu dira, batzuetan, beste urteetan baino biziagoak eta zirraragarriagoak.

**#KONFINAMENDUAREN ONDORETASUNAK #OHITURA BERRIAK
#POSITIBOARI EUSTEA**

Zenbait pertsonak frogatu zuten konfinamenduak eta murrizketa hilabete horiek jarrera positiboa utzi dutela, hurbileneko jendea ezagutu dugu eta harremana izaten jarraitzen duten aldetik. Errutina berriak sortu dira, positiboak, eta auzoan gurekin bizi diren pertsona horiek ikusteko modua aldatu dute.



**#NIRE AUZOA HOBETZEA #ADMINISTRAZIOAREKIN
KONEKTATZEA**

Egiaztatu denaren arabera, hainbat mailatako administrazioek (tokikoak, foralak, autonomikoak, estatukoak, etab.) Interneteko zerbitzuak eskaintzeko trantsizioan daude, eta horrek zenbait arazo dakartza, batez ere izapideak linean egiteko behar diren baliabiderik ez duten pertsonekin. Une horietan, pertsona askok lagundu diete laguntza eskabideak edo beste izapide batzuk bideratzen, baliabideak (eskanerra, ordenagailua) eta ezagutza partekatuta.

Aipatu dutenez, beharrezkoa da herritarrek hainbat erakunderen inplikazioa eta lankidetzatza bilatzea, auzoa hobetzeko. Konfinamenduan Arkitektura Fakultateko ikasleek Gobernu zibila kultur etxe bihurtzeko egindako lana aipatu dute..

#ESKERTZEA

#FARMAZIA KOMUNITARIOA

Lagundu eta elkartasun keinuak egin ondoren, herritarren artean ere eskerrak emateko une asko egon dira. Larraitz Alzatek, adibidez, gogora ekarri du zenbateraino harritu zuen lantoki duen farmaziak, dagokion lana egiteagatik, jendearen aitorpena jaso izanak. Uste du farmaziak funtsezko zeregin komunitarioa izan dezakeela pertsona askorentzat, bereziki, bakarrik bizi diren pertsona nagusientzat.

Farmazia+

365 DIAS
ABIERTO

365 EGUN ZABALI

#ALDAKETAREN ERAGILE IZATEA


Zalantzarik gabe, une hauetan, pertsona guztiek sentitu behar dute edozein gizarte arlotan hobetu daitezkeen aldaketaren eragile izan daitezkeela. Garbiñe Egañak, adibidez, bere esperientziaren berri eman du: nola lortu zuen Amaraberriko zenbait denda gurgil aulkiak dituzten pertsonentzat irisgarriagoak izatea, auzoko merkataritzarekin egindako aliantzei esker.

3. DINAMIKA: NOLA GOAL? NOR FALTA DA?

Gehiengoak dio iritsi zenean baino hobeto doala eta oso gustura egon dela parte hartu duten pertsonen esperientziak entzuten.

Inspirazioa eta ideia berriak aldean doaz, auzoarentzako beste aukera batzuk gogoan.

Hurrengo saiora nor gonbidatu lezaketen pentsatzeko eskatu diegu, saio horretan gogoan erabiliko baitugu teknologiak nola lagundu dezakeen herritarrentzako laguntza ekimenak lotzen eta antolatzen. Gizarte talde hauek aipatu dituzte: gazteak (zenbait pertsonak aipatzen duten taldea da), nerabeak, haurrak, auzora iritsi berriak diren pertsonak, auzoko dendak eta egoera zailetan dauden pertsonak.




Saioaren amaiera

Inplikaturako pertsona guztien esku hartzea eskertu genuen. Han dauden pertsonen parte hartzea funtsezkoa da, baina baita etorri ezin izan diren baina Auzotu ekimenaren berri duten beste batzuen ere, haien denborarik eta interesik gabe Auzotuk ez bailuke zentzurik. Gogorarazi genuenez, bigarren saioa izan arren, beste hiru elkarraldi gehiago izango dira hemendik udara. Horietan, Amaran lehenetik dauden laguntza sareen dinamikak bultzatzeko teknologia nola erabil daitekeen pentsatzen jarraituko dugu.



Inplikaturako pertsonei eskerrak ematea



Inplikaturako pertsona guztien esku hartzea eskertu genuen. Han dauden pertsonen parte hartzea funtsezkoa da, baina baita etorri ezin izan diren baina Auzotu ekimenaren berri duten beste batzuen ere, haien denborarik eta interesik gabe Auzotuk ez bailuke zentzurik. Gogorarazi genuenez, bigarren saioa izan arren, beste hiru elkarraldi gehiago izango dira hemendik udara. Horietan, Amaran lehendik dauden laguntza sareen dinamikak bultzatzeko teknologia nola erabil daitekeen pentsatzen jarraituko dugu.

Saio honetan parte hartu duten pertsonak

Beatriz Cuadrado, Marian Zarraonandia, Iker González, Olite Bilbao, Juantxo Iturria, Txema Arza, Garbiñe Egaña, Arantza Cortabarria, Larraitz Alzate, Begoña Calleja, Sorkunde Jaka, Maite González, Eva Salaberria, Kepa Rezabal

Talde dinamizatzailea

Andrea Navarro, Alex Filiatreau y Bego Pecharroman

Auzotu taldea


Deustoko Unibertsitatea, Saiaz Mankomunitatea, Donostiako Udala: Donostia Lagunkoia, Gipuzkoako Itxaron Telefonoa, Apitropik, Aptes, Farapi, La Escalera, Lotura

ESKERRIK ASKO, HURRENGO SAIORA ARTE

Promueven:



Apoyan:



AUZOTU

komunitateak konektatzen
conectando comunidades